

ITSAS HEGEMONIA IPURDIAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Salamina uhartea (Grezia), K.a. 480. Jerjes buru zuen Persiar Inperioko itsas armada Greziako hiri-estatuetakotako flotaren aurka borrokatu zen. Greziarrek irabazi zuten gudua eta itsas hegemonia haiena izango zen K.a. V. mende osoan, guduan erabilitako trirremei esker.

Trirremeak jatorri joniarreko gerraontziak ziren. Guduetan zuten eraginkortasunari esker, Mediterraneoko gerraontzi nagusiak izan ziren K.a. VI. mendetik K.o. IV. mendera bitartean.

35 metro inguru luze ziren, eta lau-er bat metro zabal. Oihak bat edo bi izaten zituzten –garaiaren arabera– eta arraunlariak altuera desberdineko hiru lerrotan jarduten zuten. Nabigatzeko nagusiki oihalak erabiltzen zituzten, hau da, haizearen indarra. Arraunlarien indarra, aldiz, guduetarako baliatzen zuten bereziki.

Trirremeetako eskifaia kapitainak, dozena bat marinel eta ofizialek, beste dozena bat soldadu eta arkularik eta 170 arraunlariak osatzen zuten. Arraunlariak gizon libreak izan ohi ziren eta soldada nahiko ona eta entrenamendu berezia jaso ohi zituzten, erritmo egokian jardun ahal izateko. Goiko lerroan aritzen ziren arraunlariak gehiago ordaintzen zieten, arraunek urarekiko zuten angelu makurrak ahalegin handiagoa egitera behartzen baitzituen.



THE CREATIVE ASSEMBLY

Greziar arduradun militarrek gorputzez gorputzeko borroka alde batera utzi zituzten itsasoan, eta etsaien ontziak jo eta hondoratzea zuten helburu nagusi. Horregatik zeuzkaten hain soldadu gutxi eta ontzia erraz manio-bratzeko hainbeste arraunlari. Gainera, arerioen ontziak suntsitzeko, trirremeei brontzezko edo burdinazko muturrak eranstean zizkieten brankan, flotazio-marratik behera. Baina persiarrek ere bazituzten muturdun trirremeak. Orduan, teknologia bera izanda, nolatan nagusitu ziren greziarrak Salaminan eta Mediterraneo osoan?

Arraunlariak ipurdi azpian zeukaten erantzuna: *hyperesion* izeneko kuxin edo zapia. Badirudi kuxina Temistokles (K.a. 525-460) asmatu zuela, Sala-

3D irudi honetan, trirreme bat ikusten da beste ontzi bat trabeska jo eta txikitzen.

minako gudua estrategia prestatu zuen jeneralak berak. Animalia-larruz eginak zeuden eta koipez estaltzen zituzten, arraunlariak, eserlekuetan finko egon ordez, aurrera eta atzera mugitzeen, egungo banku mugikorrek ontzietan egin ohi duten antzera. Mugimendu horri esker, ahalegin berdintsua eginez, arraunaren bidea luzatu egiten da eta, hala, palada bakoitzaren eraginkortasuna handitu. Ondorioz, arerioek baino azkarrago nabiga zezaketen eta, are garrantzitsuagoa dena, bat-batean biratzeko gai ziren, ontziak albotik eraso eta trabeska jotzeko. ■



Emakume gutxi Nobel saridunen zerrendan

1901ean banatzen hasi zirenetik, ia 50 emakumek jaso dute Nobel saria. Guztira 900 saritu inguru izan dira eta horrek esan nahi du emakumeen portzentajea %6 ingurukoa dela. Marie Curie (argazkian) izan zen 1903an Nobela jasotzen lehena, eta saria bi aldiz eman zioten, gainera. Sari gehienak literaturan, ba-

kean eta medikuntzan jaso dituzte emakumeek, eta 2009a izan zen haientzat urterik “onena”: lehenengoz emakumezkoa izan zen ekonomian saritua, Elinor Ostrom, eta guztira bost emakume –eta zortzi gizon– zeuden sarituen zerrendan. Azken bi urteetan, ordea, ez da emakumerik ageri palmaresean. ■